





XVIII ARTES ESCÉNICAS
MARTXOA 12-15 MARZO 2012

Hizkuntza erabileraren neurrketa

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Metodologia.....	3
3. Ahozko Erabilera	4
3.1. Ikuskizunak.....	4
3.2. Ikuskizunen Aurkezpenak	5
3.3. Jarduera Paraleloak.....	6
3.4. Aurkezpen Prentsaurrekoe.....	6
3.5. Jarduera Paraleloen Prentsaurrekoe.....	6
3.6. dFERIA Dantzan Prentsaurrekoe.....	7
3.7. Konpainien aurkezpen prentsaurrekoe.....	7
3.8. Jendaurreko zerbitzuak.....	7
4. Idatzizko Materiala.....	8
4.1. Programazio Liburuxka.....	8
4.2. Esku Orriak, Sarrerak,.....	8
4.3. Prentsa Dossierrak.....	8
4.4. Akreditatuei Emandako Materiala.....	9
4.5. Posta Elektronikoe.....	9
4.6. Web Orria.....	9
5. Erakusketak.....	9
6. Ondorioak Eta Proposamenak.....	10

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarateak, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, dFERIAren hizkuntza erabileraren neurketa egin du. Orain arte, Donostiako aisialdian eragina duten beste ekintza nagusietan egin izan dugu: Giza Eskubideen Zinemaldian, Aste Nagusian, Jazzaldian, Zinemaldian, Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldian eta Musika Hamabostaldian.

Garrantzitsua da oso eguneroko bizitzan euskararen erabilera normalizatzea. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskararen presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta, halaber, Donostiako udal ordenantzek, euskarari ofizialtasun hau aitortzeaz gain, Udalak antolatutako ekintza guztietan lehentasuna izan behar duela esaten dutela.

Bestetik, kontuan izan behar dugu, Espainiatik datozen programatzaileentzat bereziki antolatutako azoka dela. Era berean, sarrerak hiritar orok eskuratu ditzake.

Hau horrela, dFERIA antolatzen diren jardueretan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, dFERIA euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Feriak bere gain hartzen dituen ahozko ekitaldi nahiz idatzizko euskarriak neurtzen saiatu gara: ikuskizunen aurkezpenak, Feriak eman dituen ikuskizunak, jarduera paraleloak, programazio aurrerapenaren txostena, programazio gida, kartelak, web orria etab. neurtu ditugu.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 2 ataletan azaldu dugu eta kasu guztietan ele bitan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz egin zela esan nahi dugu:

a) Ahozko erabilera: Antzezlanak, dantzak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, aurkezpenak eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da dFERIAren. Antolakuntzaren argitalpenak (programazio liburuxka, prentsa dossierrak, esku orriak ...), kartelak, web gunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai.

c) Erakusketak: Atal honetan dFERIAren baitan antolatzen diren erakusketetan erabiltzen den hizkuntza erabilera neurtzen dugu.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Ikuskizunak

Hona hemen laburbilduta ikusitako **ikuskizunen zerrenda** eta daturik nabarmenenak:

MARTXOAK 12

- 16:15. Intxaurrendoko K.E. *Ubera Gorriak* (Kabia). Aurkezpenik gabe. Obra gazteleraz. Euskal erreferentziaren bat sartu zuten ikuskizunean.
- 18:00. Gazteszena. *Rosmersholm* (Gonçalo waddington). Aurkezpenik gabe. Obra Portugesez. Euskarara eta gaztelerara azpidatzia.
- 20:30. Victoria Eugenia. *Cantica II* (Studio Emiliano Pellisari). Aurkezpenari buruzko xehetasunak 3.2 puntuan (3.2 ikuskizunen aurkezpenak) azalduko ditugu. Ikuskizunak hizkuntzarik ez. Off-ean italieraz.
- 23:00. Victoria Eugenia Club. *Itzulera* (Factoría de Fuego). Obra 4 hizkuntzatan (euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez).

MARTXOAK 13

- 10:00 Lugaritz K. E. *Ali Baba eta 40 lapurrak* (Borobil Teatro). Obra gazteleraz.
- 11:30. Intxaurrendoko K.E. *Privolva* (Olatz De Andres). Aurkezpenik gabe. Ikuskizunak hizkuntzarik ez.
- 13:00. Gazteszena. *Tempus-i* (Anakrusa). Aurkezpenik gabe. Obra euskaraz.
- 18:00. Antzoki Zaharra. *Agosto, Cuadros De Amor Y Humor Fresco* (Metamorfosis). Aurkezpen laburra offean, lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz. Obra gazteleraz.
- 20:00. Victoria Eugenia. *Contra El Viento Del Norte* (Tanttaka Teatro). Aurkezpenari buruzko xehetasunak 3.2 puntuan (3.2 ikuskizunen aurkezpenak) azalduko ditugu. Obra gazteleraz.
- 23:00. Victoria Eugenia Club. *Animals´Party* (El Punto! Danza Teatro). Hizkuntza gabea.

MARTXOAK 14

- 10:00 Lugaritz K.E. *Sialuken Bidaia* (Compañía En La Lona). Aurkezpenik gabe. Obra gaztelerazko bertsioan.

- 11:30. Lugaritz K.E. *Sialuken Bidaia* (Compañía En La Lona). Aurkezpenik gabe. Obra euskarazko bertsioan.
- 13:00. Gazteszena. *In Corpore Sano* (Organic Dantza-Antzerkia). Aurkezpenik gabe. Obra gazteleraz.
- 18:00. Antzoki Zaharra. Jose K. Torturado (Studio Teatro). Aurkezpena off-ean (lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz). Obra gazteleraz.
- 20:00. Victoria Eugenia Antzokia. *Tio Vania* (L'om Imprebis). Aurkezpenari buruzko xehetasunak 3.2 puntuan (3.2 ikuskizunen aurkezpenak) azalduko ditugu. Horrez gain, aurkezpen laburra offean, euskaraz eta gazteleraz. Obra gazteleraz.
- 23:00. Victoria Eugenia Club. *Aquí va a pasar algo* (Zanguango Teatro). Obra gazteleraz.

MARTXOAK 15

- 10:00. Lugaritz K.E. *Ninika* (Elirale Konpainia). Haurrak lehenengo kanpoan bildu zituzten eta istorio bat euskaraz kontatu zieten. Barruan, aurkezpena eta oharrak euskaraz izan ziren. Obra hizkuntzarik ez.
- 11:30. Intxaurrondo K.E. *Instrumento de cuerdas* (La instalacion Yamila Uzorskis). Obra hizkuntzarik gabe. Obra egunez aldatu behar izan zuten eta azalpenak euskaraz eman zituzten.
- 13:00. Gazteszenan. *Act of God* (Ertza). Obra hasi aurretik, Asier Zabala zuzendariak dantzari baten inguruko egoerari buruz gazteleraz hitz egin zuen. Obra gaztelerazko bertsioan. Bukaeran ere beste interbentzio bat egin zuen gaztelera hutsez.
- 18:00. Victoria Eugenia Club. *Estrés por tres* (La Barca Teatro). Obra gazteleraz.
- 20:00. Gazteszena. *Act Of God* (Ertza). Aurkezpen laburra offean taldeko kide batek eginga, euskaraz, obrarekin zerikusia zuen kontu baten berri emateko. Obra euskarazko bertsioan.
- 20:00. Victoria Eugenia Antzokia. *Arte-an* (Dantzaz konpainia Aurkezpenari buruzko xehetasunak 3.2 puntuan (3.2 ikuskizunen aurkezpenak) azalduko ditugu.. Ikuskizuna hizkuntzarik gabea.
- 23:00. Antzoki Zaharra. *La Lechuga* (Gluglu). Aurkezpen laburra offean bi hizkuntzetan. Obra gazteleraz.

3.2. Ikuskizunen aurkezpenak

Intxaurrendoko Kultur Etxean eta Lugaritzen orokorrean ez da aurkezpenik izan. Gazteszenan eta Antzoki zaharrean, berriz, aurkezpen laburra off-ean egin dituzte, euskaraz lehendabizi eta gazteleraz ondoren.

Victoria Eugenia Antzokiaren 100. urteurrena dela eta, zenbait ikuskizunen aurretik aurkezpen bereziak egin zituzten. Oscar Terol aktorea izan zen horren arduraduna eta hasierako sarrera gazteleraz egin ohi zuen. Tartean zenbait artistak, dantzarik, kazetarik, programatzailek edo, norbanakoek idatzitako mezuak irakurtzen zituen (batzuk euskaraz eta beste batzuk gazteleraz). Publikoaren artean zeuden zenbait aktorek, dantzarik, zuzendarik... ere omenaldian parte hartu zuten eta erabilitako hizkuntza gonbidatuaren arabera izan zen.

3.3. Jarduera Pareleloak

Hiru bilera, Estatu espainiarreko Arte Eszenikoen feriek sortutako negozioen ikerketa baten aurkezpena, Koreografia eta dantza garaikideari buruzko workshopa eta antzerki tailer bat egin ziren "Jarduera Paraleloak" deituriko sailean. Ekintza guztiak gazteleraz izan ziren.

3.4. Aurkezpen prentsaurrekoa

Urtarrilaren 26an, dFERIA 2012ren aurkezpena egin zen Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan.

Prentsaurrekoan Nerea Txapartegik (Donostiako Kultura Delegatua), Garazi Lopez de Etxezarretak (Gipuzkoako Kultura Diputatua), Jose Luis Ibarzabalek (Eusko Jaularitzako Antzerki teknikaria), Mikel Mendartek (Kutxa kultur arloko zuzendaria), Sonia Fernandezek (Autor Fundazioa), Norka Chiapusok (dFERIA-ko zuzendaria) eta Ekain Olaizolak (Irudiaren egilea) hartu zuten parte.

Nerea Txapartegik eman zion hasiera prentsaurrekoari gonbidatuak euskaraz aurkeztuz. Ondoren, dFERIAren azalpen bat egin zuen lehenengo euskaraz eta jarraian gazteleraz (bi hizkuntzetan informazio bera emanaz). Jarraian gonbidatuek banan-banan hartu zuten hitza euskara eta gaztelera tartekatuz (hizkuntza bakoitzean informazio propioa emanaz). Azkenik, Ekain Olaizolak kartelaren irudiaren zergatia euskara hutsez azaldu zuen.

Bukatzeko, Nerea Txapartegik galdera tartea euskaraz zabaldu zuen. 3 galdera egin zituzten eta hirurak gazteleraz izan ziren.

3.5. Jarduera paraleloen prentsaurrekoa

Martxoaren 5ean, dFERIA 2012ko Jarduera Paraleloen aurkezpena egin zen Victoria Eugenia Antzokiko Txina Aretoan.

Prentsaurrekoan Nerea Txapartegik (Donostiako Kultura Eta Euskara delegatua), Norka Chiapusok (dFERIA-ko zuzendaria), Óscar Terolek (antzezlea

eta showman-a), Jon Mayak eta Edu Muruamendiarazek (koreografo eta dantzariak) eta Ainhoa Aierbek eta Teresa Prok (aktoreak) hartu zuten parte.

Nerea Txapartegik, aurtengo dFERIA-n izango ziren Jarduera Paraleloak aurkeztu zituen. Lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz (bi hizkuntzatan informazio bera emanaz). Horretaz gain, Victoria Eugenia Antzokiaren 100 urteen ospakizunetan dFERIA-n parte hartzea, Arte Eszenikoekin, Antzerkiarekin eta Dantzarekin zerikusia duten pertsonen lekukotzak iragarri zituen eta baita ikus-entzule, herritar eta arloko profesionalen ekarpenak ere. Eta horretarako parte hartzaileen lekukotza entzun ahal izan genuen. Jon Maya, Ainhoa Aierbe eta Edu Munduarazen bitxikeria eta sentsazioak euskaraz. Oskar Terol, Teresa Pro eta Norka Chiapusorenak gazteleraz.

3.6. dFERIA Dantzan prentsaurrekoa

Martxoaren 6an, dFERIA Dantzan 2012 programaren aurkezpena egin zen Eusko Jaurlaritzaren egoitzan.

Prentsaurrekoan egon ziren Mikel Toral (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustapenerako zuzendaria), Norka Chiapuso (dFERIA-ko zuzendaria), Arantxa Balenziaga (ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteko ordezkaria) eta dFERIA Dantzan programan dauden konpainien ordezkariak: Asier Zabaleta (Ertza), Olatz de Andres eta Filgie Claverie (Dantzaz) egon ziren.

Mikel Toralek eman zion aurkezpena prentsaurrekoari gazteleraz. Ondoren Norka Chiapusok hartu zuen hitza eta ele bitan egin zuen. Jarraian beste gonbidatuen parte hartzeak gazteleraz izan ziren, Asier Zabaletaren eta Figie Claverieren interbentzioa izan ezik. Biek ele bitan egin zuten.

Azkenik, Mikel Toralek eman zion bukaera prentsaurrekoari gazteleraz.

3.7. Konpainien aurkezpen prentsaurrekoak

Atal honetan dFERIAko ikuskizunak aurkezteko astean zehar egin diren prentsaurrekoak hartu ditugu kontuan.

Prentsaurreko hauetan, dFERIA-n arduraduna den Norka Chiapusok ematen zien hasiera prentsaurreko guztiei. Sarrera labur bat izaten zen gonbidatuak aurkezteko, orokorrean, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz (21 prentsaurrekoetatik, 11 aurkezpen ele bitan, 5 euskara hutsez eta 5etan gaztelerazko azalpenak luzeagoak egin zituen).

Ondoren, gonbidatuen esku geratu ohi zen hizkuntzaren erabilera. Orokorrean gaztelera gailendu da, eta atzerriko hizkuntza erabili dutenean itzulpena gaztelera egin da (21 prentsaurrekoetatik 16tan gaztelera gailendu da eta 5 prentsaurrekoetan ele bitasuna mantendu da).

Prentsaurrekoen ondoren egindako galdera gehienak gazteleraz izan arren, zenbait prentsaurrekotan euskaraz egindako galderen erantzunak euskaraz jaso zituzten.

3.8. Balorazio prentsaurrekoa

Martxoak 16, 11:30ean, dFERIA 2012ko balantzea aurkeztuko zen Victoria Eugenia Antzokiko Txina Aretoan.

Prentsaurrekoan **Norka Chiapusok** (dFERIAko zuzendaria) hitz egin zuen. Balorazio osoa euskara hutsez egin zuen luze. Bukatzean, gazteleraz norbaitek itzultzea nahi ote zuen galdetu zuen eta bi kazetarik esandakoen laburpena egiteko eskatu zuten.

3.9. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun ere neurtu nahi izan dugu. Hainbat ekitalditan zeuden laguntzaileekin euskaraz egin ahal izan dugu.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har, Dferiako antolakuntzari dagokion idatzizko materiala ele bitan edota hiru eletan idatzirik dago.

4.1. Programazio liburuxka

34 orrialdeko liburuxka bat da. Azalean kartel ofiziala du, ele bitan. Kontrazalean, berriz, antolatzaileen eta laguntzaileen logotipoak daude. Barruan, aurkibidea, ikuskizun bakoitzaren azalpen laburra (lehenengo eta hizki lodiz euskaraz, eta ondoren gazteleraz), programazioa, salneurriak eta euskal ekoizpenen datuak ele bietan (lehenetsuna euskaraz duelarik). Fitxa teknikoa ere ele bitan idatzita dago (lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz).

Bestetik, hiru iragarki daude. Bi euskaraz ("dantza gunea" eta Kutxaren gizarte ekintza) eta bestea ele bitan (dFERIA dantzan).

4.2. Esku orriak, sarrerak...

Atal honetan dFERIA inguruan sortzen den gainerako material idatzia biltzen dugu, jende gehienarengana iristen den materiala.

Eskuratu ditugun 11 esku orrietatik 4 daude bi hizkuntzatan idatzita (hau da, euskaraz eta gazteleraz) Borobil konpainiaren *Ali Baba eta 40 lapurrak*, Anakrusa Konpainiaren *Tempus,-i*, Dantzaz konpainiaren *artean* eta *dFERIAN dantzan* esku orri orokorra. Beste 6 konpainien esku orriak gazteleraz daude eta esku orri batek hizkuntzarik ez du.

Bestetik, emanaldietarako eskuratu ditugun sarreretan informazio gehiena ele bitan bazegoen ere, zenbait lekuren izenak eta ohar batzuk gazteleraz bakarrik irakur zitezkeen (hala nola, Paseo de Heriz, Republica Argentina, Mayor, descuento, gast. Servicio, total).

4.3. Prentsa dossierrak

- dFERIAren aurkezpen prentsaurrekoan banatutako dossierra ele bitan dago euskarak lehentasuna duela.
- Jarduera paraleloan prentsaurrekoan banatutako prentsa dossierra ere, ele bietan dago (lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz).
- *dFERIA dantzari* aurkezpenean banatutako prentsa dossierra, aurrekoetan bezala ele bietan (lehentasuna euskarak izanik).
- Victoria Eugeniaren 100 urteen inguruan jasotako prentsa dossierra ere, bi elean dago (ezkerreko aldean euskarazko testua eta eskuinean gaztelerazkoa).
- Asteaz zehar, dFERIAre parte hartu duten konpainien prentsaurrekoak egin ziren eta bertan konpainia bakoitzeko dossierrak banatu zituzten. Guk jaso ditugun artean, 22 ikuskizunen dossierretik, 10 ele bitan, 10 gazteleraz eta 2 euskaraz izan dira.

4.4. Akreditatuei emandako materiala

Antolakuntzak emandako poltsan eskuratu dugun materiala bildu dugu atal honetan: Eskaera orria (euskaraz), akreditazio txartela (ele bitan), esku programa (ele bitan), dFERIA programazio liburuxka (ele bitan), "Artez" aldizkaria (gasteleraz) eta Gida Gastronomikoa (jaketxe eta tabernen informazioa ele bitan badago ere, Donostiako kokapen-planoaren kaleen izenak zein taberna eta jaketxeen helbideak gaztelera hutsez daude).

4.5. Posta elektronikoa

Posta elektronikoa bidez bidalitako prentsa oharretan, informazioa euskaraz eta gasteleraz jaso dugu eta antolakuntzakoekin izan ditugun mezu trukeak euskaraz egin ditugu.

4.6. WEB gunea

Aurtengo dFERIAren webgunea zabaltzerakoan norberak ordenagailuan konfiguratuta duen hizkuntzan irakur daiteke. Ondoren, euskaraz edo gasteleraz irakurtzeko aukera ematen du (euskarazko bertsioan zabaltzen bada "español" klikatuz eta gastelerazko bertsioan zabaltzen bada "euskara" klikatuz). Informazio guztia bi hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du.

5. ERAKUSKETA

Victoria Eugenia Antzokiaren 100. urtemugaren eta dFERIAren adin nagusitasunaren oroitzapenezko bi horma-irudi jarri zituzten dFERIA 2012ko Topagunean, Mikel Berezibarrek diseinatuak. Ia testurik gabe: *100 urte/años eta Victoria Eugenia Antzokia*.

ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Hala ere, ezer baino lehen, aurreko edizioko Azokarekin alderatuta, euskararen erabilera aurrerapausoak eman direla nabarmendu nahi dugu. Hala nola, prentsaurrekoetan zein ikuskizunen kopuruan.

Ahozkoan eta **ikuskizunetan** erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskararen eta gaztelaren presentzia eta erabilera ez dira parekoak izan baina iazko datuekin alderatuta euskarazko ikuskizunetan euskararen presentzia gora egin du (%51,85a gaztelaraz, %22,23a hizkuntzarik gabe, %18,51 euskaraz eta %7,41a beste hizkuntza batean). Ikuskizunen jatorriari erreparatuz gero %55a euskal ekoizpenak izan dira, %27 Estatuko gainontzeko autonomi erkidegoetakoak (Madril, Gaztela – Leon, Andaluzia eta Valentzia) eta %18a, atzerrikoak (Portugal, Italia, Argentina).

Bestetik, egon diren **aurkezpen** gehienetan elebitasuna mantendu da (off-ean grabatutako aurkezpen guztiak ele bitan izan dira).

Victoria Eugenia Antzokiaren 100. urtemugaren ospakizun aurkezpenetan, berriz, euskararen presentzia gaztelarekin alderatua urriagoa izan bada ere, Victoria Eugeniako oroitzapen, testigantza edo pasadizoen irakurketak bi eletan izan da (euskara eta gaztelera tartekatuz), Oscar Terolen kasuan aldiz, aurkezpen eta istorioak gaztelaraz izan dira.

Asteaz zehar egin diren **prentsaurrekoak** orokorrean hartuta:

%76,19an gaztelera gailendu da.

%23,81ean ele bitasuna mantendu da.

Prentsaurreko guztietako agurretan euskara erabili da.

Hutsune nabarmenena **jarduera paraleloetan** topatu dugu. Bertan euskararen arrastorik ez da izan.

Idatzizko materialari dagokionez, antolakuntzak kaleratzen duen materialean ele bitasuna mantendu da. Hutsune nabarmenena asteaz zehar egiten diren prentsaurrekoetan banatzen dituzten prentsa dossierretan (hau da, Donostia Kulturak dFERIAN parte hartuko duten konpainien prentsarako dossierretan) topatu dugu, baita antolakuntzatik kanpo dauden beste argitalpenetan ere.

Guk jaso ditugun konpainien prentsa **dossierretatik**:

%45,45 ele bitan.

% 45,45 gaztelaraz.

%9,10a euskaraz izan da.

Konpainien **esku orriak**:

%54,55 gaztelaraz.

%36,36 ele bitan.

%9.09 hizkuntzarik gabe.

Antolakuntzak sortutako **programa liburuxka, web orria, erakusketetan** euskararen presentzia ongi bermatu da.

Laburbilduz, BAGERA Elkarteak, ondokoa proposatzen die dFERIAren antolatzaileei: dauden hutsuneak ahal diren neurrian zuzentzea (prentsa dossierrak, jarduera paraleloak), lortutako aurrerapausoetan sendo mantentzea eta euskararen erabilera areagotzen jarraitzea (prentsaurrekoetan, aurkezpen berezietan, ikuskizunen kopuruan). Bide horretan, BAGERAren esku dagoen heinean, laguntza behar izanez gero, beti prest edukiko gaituzue.